naturaleza española de la colonización sufrida en el sur a todo lo que es español, incluyendo en su odio a una clase obrera que es revolucionaria y que, por lo tanto, ha empezado ya a apoyar y los hará cada día más a la justa lucha de los vascos por su independencia, y como desdichadamente en pocos años una serie de desviacionismos españolistas se han unido a concepciones supuestamente comunistas, los antiespañolistas reaccionan como anti-comunistas. Hemos de luchar contra ello, y sólo nuestra práctica como socialistas patriotas puede hacerlo, apoyándose en las reales actividades internacionalistas de los pueblos español y francés y esto nos lleva directamente a nuestro segundo fallo; una política proletaria, como la que hoy en Vasconia está siendo cada día más dominante, exige necesariamente una política internacionalista. La revolución mundial es una unidad con diversos frentes: el frente de lucha vasco, que toma la forma de luchar por la independencia nacional, con contenido socialista, se une NECESARIAMENTE a los del resto del mundo, pero el internacionalismo ha de ser una realidad práctica y habida cuenta de que nuestros enemigos directos son los imperialismos español y francés y de los lazos que nos unen a los pueblos de estos dos estados, el verdadero internacionalismo se mide en nuestra unidad revolucionaria con los pueblos de los estados español y francés. Concretando más: ya que la masa principal de la población vasca está en el Sur, nuestro principal campo de acción internacionalista está en nuestra unidad anti-oligárquica con los españoles (castellanos y andaluces), catalanes, gallegos y canarios. Pretender que nuestro Internacionalismo ha de acercarse tanto con los vietnamitas que con los españoles no es más que una falsedad, una cortina de humo para ocultar una falta real de internacionalismo práctico.

Aquí es donde más **cojeamos** (maingu egin). Podemos invocar de nuevo el reflejo primario anti-español, así como la falta de real política internacionalista de los partidos social-imperialistas españoles. Pero estas explicaciones no son justificantes, hay que

luchar contra ambas e iniciar ya la colaboración revolucionaria con los que en España y en Francia empiezan a comprender la naturaleza justa y revolucionaria de nuestra acción patriótica.

En estos aspectos los «Españolistas» han ido mucho más lejos que nosotros y esto les ha ganado militantes sinceros, desdichadamente, ciertas actitudes (como la negación de la unidad revolucionaria de ambos lados de Vasconia) nos hacen temer que ciertos elementos de su cabeza han confundido Internacionalismo con integracionismo español social-imperialista.

Hemos, pues, de ser conscientes de los aspectos positivos de nuestra actitud para reforzarles y desarrollarlos y hemos de ver nuestros fallos para corregirlos. En este aspecto, hemos del enfocar la naturaleza de nuestra polémica con los «Españolistas»: hay que sacar de ella luz para el pueblo. Denunciamos, sí, sus desviaciones social-imperialistas, pero aceptemos ese camino de búsqueda de un PC y de un internacionalismo. Practiquemos la lucha ideológica y no el (kalaka) comadre. Por ello, hemos de condonar como CONTRARREVOLUCIONARIAS las adjudicaciones mutuas de adjetivos que no discriminan nada («fascistas» o «españolazos») y sobre todo las actitudes de calumnia personal. En este aspecto hace falta decir que los que se llevan la palma son los que escribieron y difundieron ese escrito en el que se pide al pueblo vasco que nos dejen de lado porque Etxabe tiene un invernadero negu-toki, Sarraih lee libros, Madariaga viaja en coche, Arregui vive en Paris y López termina su carrera... denunciamos esa actitud, pero no caigamos en ella: el pueblo espera que le sirvamos a través de la discusión de posturas ideológicas, y de actitudes políticas, y ver una guerra entre calumniadores y cotillas no creo que le divierta.

Y, por último, como socialistas, como patriotas y como militantes de ETA resumimos lo que creemos ha de ser nuestra actitud práctica en el momento actual:

- 1) EFECTUAR UNA PRE-ASAMBLEA: en ella

ha de discutirse los puntos mínimos ideológico-estratégicos que defenderá ETA en el periodo anterior a la Asamblea. Han de ponerse en pie estructuras representativas que permitan la marcha de la organización en el periodo de «interregno», y han de ponerse en marcha los engranajes que permitan la mayor participación de las bases en la Asamblea. En la opinión de unos cuantos de nosotros (Marxistas) ETA ha de seguir defendiendo la lucha por la unidad, la independencia y la eskualdunidat de Vasconia, la lucha por el socialismo y el recurso a la violencia; y ETA ha de convertirse en un frente de tendencias de modo que sea el grupo más dinámico tanto para unificar alrededor de él a las fuerzas de la izquierda vasca que quieren un FNL, como a los obreros, los campesinos y los intelectuales que luchamos por un PC patriótico.

**2) PROFUNDIZAR LA LUCHA IDEOLÓGICA:** Poniendo en pie un programa de publicaciones sobre problemas teóricos, históricos y militares, aceptando e imponiendo una política sana, con los otros grupos, negándose a toda actitud sectaria.

**3) INICIAR UNA POLÍTICA INTERNACIONALISTA:** Auténtica a ambos lados de la frontera, entrando concretamente en contacto con todas las fuerzas que aceptan hoy nuestro derecho a la autodeterminación.



### Euskaldun Abertzale Elkartearen Xedeak

E.A.E.-a eta oligarkien kontrako  
 E.A.E.-a eta langile-gatazka elkarketak  
 E.A.E.-a eta borroka armatua  
 E.A.E.-a eta Jakintza-Buruzagitzza Elkartua  
 E.A.E.-a eta langile-gatazka  
 Abertzalesuna ta Internazionalismoa  
 Marxista taldekoen jokaera E.T.A.-ren barruan

### Euskaldun Abertzale Elkartearen Xedeak

Batasunaren beharra sinisten dugulako bildu gara honera.

Gauza bat esan behar dugu lehen-lehenik : Euzkadi-ko Jaurlaritza edo Gobernua ez dela gaur batasun-behar horri dagokion zuzendaritza eta eman behar zaion erantzuna.

Espana-ko Errepublikak eman zuen Estatutoaren alboan sortu zen, gudu-garaian, Euzko Jaurlariiza deritzana; eta, egia esateko, Euzkadi-ko (alegia : Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa-ko) indar autonomizale guzien zuzendaritza elkartuari dagokio. Bertan ba dago denetarik. Alde batetik, askatasunerako bidean Estatutoa lehendabiziko pausutzat hartua duten euskaldunak. Bestetik, berriz, estatuto-zale besterik ez diren euskaldunak;

baita areago: euskaldunei egin dokiekean esku-zabalketarik haundiena, autonomia hori jotzen duten espanatarrauk ere.

Gerratekoan, parte hartu zuten Jaurlaritzan Euzko Alderdi JEL-tzaleak, Euzko Ekintzak, Izquierda Republicanak, Union Republicanak, Partido Socialista Obrero Espanolak, Euzkadiko Partido Comunistak, Union General de Trabajadoresek. Confederación Nacional de Trabajadores, eta Euzko Langile Alkartasunak. 1945-an, Baiona-ko Tratua egin eta 3 urteraras Jaurlaritzak botaia izan zen Komunista Alderdia; baina estatutozale iraundi zuen Gobernuak, joera ez aldatuz.

Jaurlaritza hau bidezkoa eta beharrezkoa izan zen gerra-garaian, baina gaur ezin du

bere burura bildu euskaldun iraultza. Bere jatorriagatik, bere jokabideagatik eta bere burukideengatik, guztiz bazterturik eta gainditurik dago: ezin dezake bere gain hartu Iparraldeko arazoa; eta indar iraultzaile berrieik ezin dezateke ontzat eman « estatutoaren antolamendua ».

Ez da aski “gazteet” bertarako sarrera eskeintzea. Euskal Abertzale Elkarte bat (E.A.E.) behar da, eta honen jatorria, burukideak eta jokabidea gaurko egoeran sustraituak izatea beharrezkoa da.

E.A.E.-arentzako helburuak finkatzerakoan, abertzale klase guzien interes jeneralak bilatu behar dirá, baita geroko iraultzaren segidarentzako oinarriak.

Hemen eskeintzun duguna ez da laburtzapen edo bilduma bat baizik; ez helburu oso bat. Baino iagungarri izan daiteke eztabaidetan.

Euzkadi-ren BATASUNAREN alde egingo du burruka E.A.E.ak. Ez du honek adierazten helburu urrunetarik bat, etorkizuneko euskal politika-sistema osatuan, Euzkadi-ren bi alderdiak bateratzea eta biltzea denik. Baizik eta Euskal Herri guzian, eta burruka berberaren zuzendaran'a dela E.A.E.-a gaurtik beretik; estrategia bakar bat harturik, nahiz taktikazko desberdintasun garrantzitsuak izan.

Euzkadi-ren ASKATASUNA da beste helburu bat. Herri desberdin antzera, geronen etorkizunaren jabe oso izan nahi dugula adierazten du « askatasun » hitzak. Gure ustez, mugen ezabatzean edo funditzean parte har ahal dezagun, askatasun hori da guretzako lehenengo urratsa; eta, horren bitartez, Lurreko herri guztien arteko anaitasuna sortzekotan nahi-ta-nahiezk zimentarria.

Herriaren EUSKALDUNTASUNA defendituko du ere E.A.E.-ak. Geronen nortasunaz zeharo jabetzeko bidé egiazkoa hori déla aitortu nahi dugu horren bidez, gure nazio-nortasuna geure hizkuntzaz, euskeraz, osatzen bait da. Euzkadiko baliodun hizkuntza bihur-arazi behar da euskeria: alegia, ekoizpen edo produzioarena, administrazioarena, eta jakintzarena. Noski euskalduntzea diogunean, euskaldun nortasunaren

iraupenari eta pizkundeari buruz erraztasun eta indar guziak ematea diogu. Ez dugu adierazten, beraz, Euzkadiko biztanle guziei nahita-nahie euskeria onhar-araziko zaienik: aztertu egin beharko dirá aurretik frantses, espanatar, galiziar, eta abar, gutxiengo edo minorientzako kultura-araudi bereziak.

Beste helburu bat: Euskal Abertzale Elkarteak gure herriaren DEMOKRAZIKUNDEA zaituko du. Gauza agiria gure herrian gaur ez dagoela askatasun demokratikorik: ez prentsa-askatasunik, ez mintzatzekorik, ez biltzekorik, ez elkartzekorik. Denak daude debekaturik espanatar legedian, eta oso mugaturik frantsesean. Bietan eta oso bereziki ukatzen zaizkie askatasun demokratikook iangile-klaseari, organizazio iraultzaileei, eta nazio-minoriei. Bere helburuetan sartu behar du, beraz, E.A.E.-ak eskubide horien guzien lortzea; eta burruka egmgo dugu guk askatasun horiek mami daitezen, hitz hutsetan eta alegiazko eskubidetan pauza ez daitezen.

Ekonomian eta gizarte-mailako arazoetan, sistema aldatu behar du E.A.E.-ak. Ekonomia Herriaren zerbitzutan jartzeko, E.A.E.Ikurutzamendu edo Komunikazioak, Garraioak, Industria nagusia, Miak, eta Euzkadi-ko ekonomian beharrezko diren gainerako produzio-bideak. Hauek gaur atzerritar oligarken eskuetan daude; baita, zenbait aldiz, herti-hertsiki imperialista yankien beren eskuetan. Naziotartutako ekonomia hori ezin daiteke inolaz ere minoria baten irabazketaren zerbitzutan molda, eta langileen multzoaren sofrikarioak emendatuz. JABEGO PRIBATUARI buruzko legedi batek mugatuko ditu eragintza pribatuaren eskubideak (alegia, nazio-burgesiaren ekintza-eremua), Herriaren interesen kontra ez dagoen neurrian onartuz, bainan ez areago. Era berean, GIZARTE-LEGE sorta bat sartuko du E.A.E.-ak bere araudian, sindikato-askatasuna gerizatzeko, zapaldutako klasearen bizimoldea hobetzeko, eta langileen erabaki-kidetasuna bultzatzeko: bal lantegtetan, bai nazio-ekonomiaren pEangintzan, bai Euzkadi-ko politikazko zuzendaritzan.

E.A.E.-ak, bere atzerrialdeko politikabidean, imperialismoaren kontra jokatuko du. Gure barne-politikaren ezin-bestezko ondorios da hau; ze hura oligarkien eta imperiahsten aurka bait doa, Yankitar imperialismoa aitortuko du E.A.E.-ak herri guzien askatasunaren etsai nagusitzat. Baino URSS-eko zuzendaritzaren sozial-imperialismoa ere burrukatuko du. E.A.E.-ak bat egingo du beren nazioaskatasunaren alde burrukan ari diren herri guziekin; eta, batez ere, Europa-ko nazio zanpatuekin.

#### *E.A.E.-a eta oligarkien kontrako*

Hitzurrean esan dugunez, E.A.E.-aren sorrerak ez du adierazi nahi euskaldunen arteko klase-burruka itzalia denik. Barne-molde bat proposatzean, beraz, kontuz ibili behar dugu, bateratasuna ahalik eta gotorrena izan dedin; baina baita taldeen arteko desberdintasun eta askatasuna atxikiak izan daitezen. Iriztide hau oinarri, talde bakottzak bere agiriko ekintza, kritika, eta zabalkundearen askatasunari eutsiko dio, eta eskubidea izango du denen artekotzat onartuak izan ez diren puntuetan, gainerako taldeen kontra mintza ahal izateko. Ekintzarakcan :

1. — E.A.E.-ak bere aparato edo organizazio berezia izango du, taldeen arduradunek eta E.A.E.-aren beraren arduradunek osatua (azkeneko hauek taldeekiko libro izaki).
2. — E.A.E.-ak bere dirutza berezia. bere aldizkari bereziak eta bere ordezkari bereziak (barruko eta atzerriko) izango ditu.
3. — Era berean, Elkarte-ko organizazio bakoitzak bere dirutza, bere aldizkariak eta bere ordezkari bereziak izango ditu. Dene artekotzat onartutako politikabidea eta ekintzak bultzatu beharko ditu (alegia : E.A.E.-aren bereziak); eta gainerakoetan, bere esku izango da arras.

Esan beharrik ere ez dago, burukide guziek bai **armo** eta bai **etorkor** izan behar dute batera. Ezin dugu guK, batasuna behar déla bidé, zenbait puntu nagusitan amor-eman. Horrela jokatuko bagenu, iraultzaren

kontrako atzerakeriak egingo genituzke, eta batasuna ez litzake herriaren onerakoa izango, kalte-iturri baizik. Baino, alderantziz ere, ezin ditzakegu onar jarrera gogorregirik eta alderdikoink, herriak behar duen batasunaren kaltetan litzakealako.

Zaila da jokabide hau, baina beharrezko

#### *E.A.E.-a eta langile-gatazka elkartetako*

Gure iraultzaren hefburua, Euskal Herriaren askatasuna da; eta askatasun hau mundu guziko herrien askatasun ilara barruan ikusten dugu. Espanatar eta frantziatar otigarkien agintea deseginez, urrats bat egingo dugu geure askatasuneruntz. Euzkadin duten agintekeria desegitea da gure helburua. Horreruntz doan gure bideak, beraz, etsai berberen kontra jartzen gaitu gu, eta espanatar eta frantziatar erresumetako gainerako herriak.

Agintekeriaren desegintza hori urrats bat da gure askatasunerako bidean. Gure herriaren egoera ezagutuz gero, bitan zatitua, eta gizatalde desberdina den aldetik suntsizerako abiadan sartua, estrategiazko askatasuna behar dugu geure azken helburua lortzeko, eta taktikazko elkartetako behar ditugu lehen pausuak egiteko; aiegia, agintearren eta atzerritar ougarkien desegiteko.

E.A.E.-aren moldaketa eta euskaldun langileen mcgimenduaren askatasuna, geronen estrategia bereziari dagozkio; oligarkien kontrako elkartetatan sartzea, berriz, taktikezko harreman beharrezkoei dagokie. Hau gabe, gure askatasona arriskutan jar titeke.

Elkarteta hauetan, batzuek helburutzat espanatar eta frantziatar erresumetan demokrazikundea izango dute (demokrazikurtde horrek, jakina, euskal nazio-arazoa aintzakotzat hartzen duelarik); eta, funtsea, E.A.E.-aren helburu berberekoa izan daitezke. Noski : Elkartea bera izango da tratu horietan Euskal Herriaren ordezkaria. Era berean, E.A.Elkartea izango da, egunen batez, gure zapaltaileekin (autonomiaz edo bfmintzotasunaz eman dezagun)

harremanetan jarriko dena. Nahiz guk pausu horiek betiko helburutzat inolaz ere ez harturik.

Bestelako elkarketa-motetan, iraultzaileen artean moldatu beharrekoetan, eta egoera sustrai beretik aldatzeari dagozkionean, noski, euskal mogimenduak finkatuko ditu hauzoko herriekiko loturak. Elkareta hauen xedeek E.A.E.-rena gainditzen dituzte aisa.

#### *E.A.E.-a eta burruka armatua*

Gure ustez, ez dago bidé bakar bat baizik gure htlburu btkoitza erdiesteko isktluzko gatazka, gudu armatua, gudu herrikoia; sozialista iraultzan garaitzeko ez-ezik, lehenago azaldu dugun E.A.E.-aren helburua lortzeko ere. Horrenagatik, E.A.E.-ak zuzendu beharko luke gudu armatua nazio-askatasuna izan arte.

Halaz ere, gudu herrikoi honen beharra hastapenetan agertuko ez balitz, ezta E.A.E.-ak berorren buruzagitzan bere gain hartu nahi ez balu, bortxa iraultzaile hori erabili, eta gudurako prestatzen ari diren tatdeei, askatasuna utziko litzaieke. Ekintza gogor hauek eta E.A.E.-arenak xeheki egoki-arazt beharko dirá.

#### *E.A.E.-a eta Jakintza-Buruzagitzan Elkartua*

Ezin-bestean, legetik ateko eta isilpekoa izango da luzaroan EuskalAbertzale Elkartea. Baino dagoenetik dugu geure kulturaren eta geure hizkuntzaren aldeko burruka legeztatzeko aukera; eta bien hedakundeak prestatu behar dugu. Eskoietan euskera legezkoa izatea eskatu eta lortu behar dugu; gauza bera bigarren erakaskintzamailan eta Unibertsidadean; euskal iakintzaren aldeko eikargoak eta gizarte-ikasguak sortzeko eskubidea inguratutu behar dugu, eta abar. Politikazko askatasuna aski ez den artean, isilpeko eta erdi-legezko kultura-ekintzak azkartu behar ditugu. Baita azken ttantza ere uxtiatu behar da, mugaz bi alderditan Kultura-Buruzagitzan bat legeztatzeko.

Horretarako, bere buruz ibiti behar du Kultura-Elkartea. E.A.E.-aren eta organizazioen aginduak beteaz, Kultura-Eikarteko ekintzan ari direnek beste ekintza-motetatik berex jarri behar dirá, alperrikako zanpaketak baztertzeko (batez ere militar arazoetatik hel dattezkeanak).

#### *E.A.E.-a eta langile-gatazka*

Euzkadin ktase-burrukak nazio-askatasunaren aldeko itxura hartzean, langileriaren interés sakonenek behartzen gaituzte Abertzale Elkarteak sortzera. Honetan irauitzaren zuzendaritza langileek, berex organizaturik, eramango dute aurren, baila gudu herrikoia ere. Honek ez digu halere ahantz-erazi behar ezen kapitalismoaren kontra egunero egin behar déla burruka :

langilearen bizimodua ontzeko, lantsari hobeen helburuari eusteko, iangintzaren abiadura txikitzeo, giza-dinatasunari dagozkion segurantzi-bideak errespetarazteko, langi leordezkaritza egiazko baten aldeko burruka aurrera eramateko. Ez du E.A. Elkarteak puntu-sorta hau baztertu behar.

Halaz ere, nahiz Elkarteak langileen ekintza aintzakotzat hartu, langileak berak dirá beren buruen jabe eta liberatzaleak. Gaurtik beretik, hiru burruka-maila berez bidé daitezke :

1. — **Lantegi-mailan.** — Eman dezagun administrazio-kontseilu bat. Honen kontrako langile guzien interesak berberak dirá segidako. Lantegi-barruan bertan, aberkideak eta arrotzak azertan berezi gabe sortu behar da tangueen autojestioko btzorde bat; eta honek langile guzien interesak zaitu behar ditu nagusiaren edo nagusien nahikundeen kontra.

2. — **Sindikato-mailan.** — Ekintza-sail batu gagozkiolarik, herrika eta produzio-sailka biltzartuko dirá lantegietako kontseiluak; eta ugazaba edo nagusi-multzoaren kontra erabakiko dituzte eskabideen eta ekintzen lerroak. Horrez gain, beren sindikato-sistema berezi batean moldatuko dute langileek

beren burua, hori E.A.E.-aren abiadan eragin ahal izateko; baita oinarri gisa, Euzkadi-ko ekonomia berrian autojes tio-batzordeak sortzeko.

### 3. — Estrategia nagusiaren mailan. —

Kapititu honen hasieran azaldutakoaren arabera izango litzake ekintza politikoa; eta helburutzat Euskadi Askatuan sozialismoaren eraikiera izango luke.

Lehendabiziko ekintza-mailak ontzat eman beharko lituzke Elkarteak; eta aberritar burgesiaren jokabidea eratu beharko luke, zanpaketa nabarmenenak uxaraziz, eta langileen partehartzea (bai trabazkinetan, bai lantetegiaren zuzendaritzan) segurtatuz.

Gure ustez, eta gure lehendabiziko « Sobre la situación actual » delakoan proposatu genuen bezala, E.A.E.-arentzako oinarri tinko bat sor liteke Euskaldun Iraultzaleen Biltzar

batetik.

Defenditzen duen jarraipideari eutsi dizaion, beraz, proposamendu honi baimena eta laguntza eman dizaizkiola eskatzen diogu ETA-ri.

Gauza bera eskatzen diegu gainerako organizazio abertzaleei. Ondoko hauek sortzea proposatzen dugu :

1. — Elkar-aditzeko IDAZKARITZA BAT, Euskal Abertzale Elkarteko burukakide guzien artean osatua.
2. — Idazkaritza horren manupean eta erantzukizunean denen arteko ALDIZKARI bat.
3. — Maila guzietan, eta E.A.E.-aren alde lanean ari, AUTOGESTIOKO batzorde herrikoiak.

Euzkadi, 1970-ko Urriaren 18.

## Abertzetasuna ta internazionalismoa

Euzkadi askatzeko gudukatu behar dugu, ikisiz gizinak eta gizon klaseak nota jokatzen diren, bai gure herrian eta bai munduan.

Gaurko egunean, herri bat ezin leike osotu askatu, gizarteiraultza egin gabe. Europaren beintzat, abertzale ourgésesek ez daukate, teñen bezaTa, estado berri baten buru, beren gain jartzeko ahalik. Ekonomian, gizona lenengo ezartzea, eta ez dirua, langilleek baizik ez dute lortuko. Langilleak nagusituta baizik da bere gain jarriko Euskal-Herria, bere izkintza berezia erabiliz bai laneko, bai gobernuko, bai kulturako sailletan. Gehiago dena, mundu hunetan, aspaldi abiatura den gizarte-iraultra asko aurreratu da. Lehen guduak, erresumen artean ziren gehienik ikusien : orain gizon klasen artean. Langilleak nagust aterako diralarik, xutik ezartzen ahalko dute gizarte berria — Hori da, mundu zabalean, zapalduta dauden herri ta klase guzien gudua. Guda horrek ditu nazionaleak elgarretaratzen, herri bakotxa lagunduz bere zapatzaileri oldartzen eta sozialismo berezi

baten eraikitzen.

Hortarako, euskaldun langilek behar dute alkarto bi gudusailletan. Lehen gudu-saila gure zapalzaille kolonialistak suntsitzea eta gure herria, gobernu sozialistak batenibidez, bere gain jartzea. Baino langilletk hori ardiesteko, behar dute beren artean ondo apailatu, egunean eguneko laguntzaille guziak bilduz. Zapalduak geran bitartean, klase guzietako abertzalek behar dute gudu-sail berean alkarto.

Bestalde, erresumen artean gure tokia zaintzeko, menperatu gaituzten español eta frantses multxo arrotzak behar ditugu arrautsi.

Gure herria ez dugu askatuko, bi gudu-sail horietan alkartuz baizik. Alkartze horrek indar gehiago ematen digu etsaiaren garaitzeko eta biharko gizarteari buruz apailatzeko. Abertzalek eraikiko gizarteari, euskal kultura diote mamitzat emanen.

Orai aberria eta euskera zimendutzat hartuz,

urretik muntatzen ditugu binarko eraikidurak.

Nausi talde arrotzen aurka jokatzen direnek mundu berri bat sortzen dute, zointan euskaldun, español, betroin, frantses, gallego ta abar, lasai eta anaitasunean biziko baitira, gizon batek bestea eta aberri batek bestea zapaltzerat utzi gabe.

Baina gure herria, nazio bezala, zapaldua balin-bada, gure langilleria ere, klase bezala, bardin zapaldua da, eta horregatik euskaldun langillen alderdiak behar du bere gudu-saila eramen, berak nahi duen békala. Nahi ta nahi ez, aberriaren askatzeko, langillek burges handi ta ttipiekin behar dute alkartu, baña kasu emanez, gal-bidetan ez ibiltzea eta iraultza, erdizka eginik ez uztea. LangiMe-klaseak ere askatu behar baitu !

Aldiz gu zapaltzen gaituzten aberrietako (Espanako eta Frantziako) langillekin alkartuz, gure gudua zertarat ari den argi ta garbi behar diotegu adi-erazi, aberri zapatzaileen indarra nagusitzerat ez uzteko. Euskal-aberriak ere askatu behar baitu !

Hortarako guk eskaintzen dogun jokabidea hauxe da :

I. — **Euskaldun sozialistak bateratzea,** haiekin ditugun hartu-eman guziek baliatuz

lantegietan, politika-billeretan, kultura-lanetan, geroari buruz langillez apailatzen dituzten eraikiduretan.

2. — **Gure aberria askatzeko asmotan diren guzien biltzea :** Euskal-alderdi guzieri onhartaraziz gutxienez onhartzen ahal dituzten bideak eta lendabiziko hel-buru bezala, Euskadi bere gain jartzea.

3. — **Nausi-talde arrotzen errausteko alkarrekin gudukatzea :** Garai huntan, lehenik españolen aztaparretatik hego-EuskalHerria kendu, gure gain jartzeko eskubideaz balitztuz eta manatari arrotzak botaturik, herri legezko estado euskaldun bat eraikiz

Horra zein diren gure egin-gaiak. Euskaldun guziek ez dituzte onhartzen. Baña zintzoki ukatzen badituzte, nanbat hobe, hola bakoitzak barruan daukana agertzen baitu. Gezurtiak aldiz eta saltsero gaixtoak, ñor nahi izan ditezen, gaitz-e;len ditugu.

Zer edo zer esan nahi dueña mintza dedilla, ez gure personen aurka, baizik gure politikaren aurka. Askatasunerako guduau sartuak baigera, gure burua ez degu zikintzerat utzi nahi.

(GATAZKATIK HARTUA.)

## Marxista taldekoen jokaera E.T.A.-ren barruan

E.T.A. bi taldetan zatitu da. Zatikatze horrek ez gaitu itsutsu behar. Herriaren onetan ari gera, ez talde batek besteari gana hartu beharrez, alegia : gure ganik aparte jarri diren « Espanolistek » E.T.A.-koak direla diote.

Ageri hau ez dugu zabaltzen guitarik berexi direnen biltzeko, baizik herriari adierazteko zertan, gure ustez, aUeratu edo aurreratu den askatasunerako gudua, ikusiz ñora dijoazten bai « Espanclisten » joka-bideak eta bai gureak.

Euskadi, gure aberria dalako, E.T.A.-k askatu nahi duela hori herriak argi ta garbi ikusi du eta onnartu. Orai, lehen bezala, asmo beretan da gure herria : mugaren bi alderdietan gureak gure. Gutxi gora, 1.964-etik orai arte, erdihilla zagon sua berriz piztu da, abertzalen guduag hartu ditu iraultza-moldeak, herria kalera jautsi da, Euskadi askatzeko eta batetaratzeko jokatu diren abertzale guzieri bere baimen osoa eman diote, langille-klasearen alde agertu da, ikusiz guretarra preso hartuak izan direla, desterratuak edo

hillak, euskal-aberria salbatu nahi zutelako.

Horregaitik inork ez du gure herrian iraultzarik eginen, ez baltnbada konturatzen herriak bere aberria xutik ezarri nahi duela. Hori da guk aukeratu dugun jokaera, herriarekin bat egitea gatik. Aldiz E.T.A.-ren barruan « marxismo-leninismo »aren izenean ari direnek beste iokaera bat hartu dute : ez dute nahi bereala Euskal-Herria osoki bere gain jar dedin baizik « autodeterminación » deitu eskubidea noizbait ardiets dezan. Gure ustez holako jokabideart jarraituz, askatasunerako gudua atzeratu egiten da.

Zer gaitik ? Ez baita xuxen ikusten delako « autodeterminación » horrek zer eskubide ematen digun. Amerikako imperialistek ere menpean dauzkaten Atlantico-bazterren legetan sartu dute, eta guri ere, behin bederen *eman* digute. Baña zer balio du paperetan ezarria den eskubide Horrek ?

Euskal-Herriak, bere gain jartzeko, behar ote du zai egon Espanan sozialismoa nausitu arte ? Hola jokatzen batin-bada, atzeraka ari déla usté dugu. Orai asko ta asko dirá, Euskadi osoki eta laster bere gain ezarri nahi dutenak. Hontaz konturatu behar du egiazko marxista batek, eta hau ikusuaz gudukatu.

Langilleak dirá, Euskaldun guzietattk zapalduenak. Beraz Euskadi osoki la laster bere gain jartzen bada, gehienik irabaziko dutenak ez ote dirá langilleak ?

< Espanolistek » aldiz usté dute nahikoa dala « autodeterminación » deitu eskubidea eskatzea. Hori ahal da egiazko marxismcaren iokaera ? Ala zer uste dute ? Burges handi ta txipia dirala bakarrik Euskadiren askatasun osearen alde? Hori usté balin badute ,garbiki esan dezatela langille euskaldunek, Euskadi askatuz, ez dutela ezer irabaziko, eta nahiko dutela Hego-Euskal-Herria bizi dadin España sozialista baten menpean, euskal « minoriaren » eskubideak zainduz.

Berriz ere esaten dugu egiazko marxista batek ezin duela onhartu « autodeterminazioa » **bakarrik eta noizbait**, bere aberriarentzat. Esan dezala, bai ala ez, Euskadik behar duen berexi bere bi zapatzaille arrotzen ganik. Askatasun osoaz hainbeste gose ta egarri diren Euskaldunen

bizi-moduan, nola ikusten du berexkuntza hori? Burges txikien amets bat bezala ? Orduan Espanako ta Frantziako herri guzientzat eskadezala batasun handi bat, « minoria > guziak errespetatuko dituena.

Guri, abertzale bezala, marxismoak beste ikus-molde bat ematen digu : Abertzale burges-handi ta txikien ondotik sortu dirá abertzale irautza egileak, langille-klasearen aldekoak. Hori ezin da ukatu. Baña abertzale eskubitarreri gana hartzen badiotegu, ez dugu ere sozialista español menperatzailen aztaparretan erori nahi, hauek izan diten P.C.-koak (ogei-garren gizaldiko « social-demokratak ») edo beste edozein español reformisten antzakoak.

Horra zergatik ez dugun onhartzen, gai huntan beintzat, « Espanolisten » jokaera.

Beste gauza bat errepikatzen dugu : abertzale mota guziek alkartu behar dutela. Euskadi bere gain jartzen baltnbada, orai gehienik zapaldua den langille-klaseak du gehienik irabaziko : hori esan leike nunahiko langillez, baña egunerolo guduan guk hori behar dugu gogoan hartu.

Azken urte hauetan, Euskadi guzian barna, jendeak begi onez ikusten du, askatasunerako guduan, edozein alderditako abertzaleak alkartzea. Orain arte abertzaletsuna buregs haundi ta txikiak zaukaten menpean. Beti beren klasearen onetan ari ziren, eta ez batt herri guziaren onetan. Haientzat ezin zen abertzale izan katoliko eskubitar izan gabe. Langille abertzalek, beren klaseko alderdirik ez izanez, « euskotar » burgesen ondotik ibilli behar zulen hauek bakarrik zutelako abertzale-politika bat (beren gisan) moldatua. Baña geroztik langillepilla bat sortu delarik eta politikan sartu, abertzale burgesen nausitasuna desegiten asi da, bere politika-alderdiekin hatera Euskal gobernua itxura huts bat baizik ez da — P.N.V. alderdia eta bere esku-makilak itzaltzen ari dirá. Azken urte hauetako politika-indar handiena E.T.A.-k du agertu, ez burgesen alderdiak.

Bana abertzale bezala, burges handiek asko galdu balin badute, ez dirá langilleak bakarrik nausitu : orai zapalduta daudent bitarteko

klasek ere badute ezer egin Euskadi askatzeko langilleria, baserri-jendea, burgeskeriatik zati bat, F.N.L. batean alkartu behar ditugu, etasi zapaltzaille beraren arrausteko. Hori du gain-gainetik herriak eskatzen. Bana F.N.L. hortan sartzen bada orano sortua ez den langille-abertzalen alderdia, onek indar berri bat ematen dio guduari. Aldiz c Gobierno Vasco » eta P.N.V. bere alderdi naust-nahiak sartzerat uzten balin badira F.N.L. horren barrura, gudia atzeratu egingo da. F.N.L. deitu alkartasunean sartzen denak ez dute atzerakoi izan behar, baizik aurrerakoi.

Langilleria baizik ez badu onhartzen, bost ajota zaio gure aberria bi zatitan puskaturk ikustia, usté du langillez bezterik inor ez déla menperatzailen aurka behar bezala gudukatuko denik. Zabal ditzagun gure ikus-moldeak, bardin burges gudari batzuk bilduz, baña langilten eskuetan ezaniz, bai herriaren, bai aberriaren askatzeko kargua.

Ez ditezke, gaur, kolpez bazte utzi, burges abertzaleak eta bihar langilleak bakarrik onhartu abertzale bezala.

Langillez bestalde, abertzale mota asko gurekin hartuz, moldatu behar dugu imperialisten aurka jokatuko diren gudari guzien alkartasuna, Bidasoaren bi atdetan.

Burges-ekin ez alkartzea gatik, bidé hori hartzen ez duenak, ez daki zertaz eta zertarako egina den, herriak eskatzen digun F.N.L. deitu gudarien batasuna.

Batzuek diote burges-ek nahi dutela, F.N.L.-horren bitartez, langilletan gal-erazi iraultza egiteko daukaten asmoa. Baña ez dirá burgesak asi F.N.L. batasuna moldatzen, baizik langilleak.

Nota nahi, langille eta « burges ttipiak » alkurturik ere \* Euskal-Gobernua » bazterzeko edo beste zernahttako. klase bakotxa bere onetan ari da eta bardin biak alkarraren aurka. Baña ez du batek bestea menperatu behar sozialgauzetan bakotxak bere jokabidea har dezala, aldiz etsai arrotzen aurka deramaten guduann, biek bat egin dezatela.

Inola egiterat utzi ezin teiken gauza :

abertzalegoa « burges-ttipien » eskuetan ezartzear, urte askotan egin den bezala, gero ez baita harritu behar « social-imperialistak » geraia esaten badigute.

Gure ustez errotik arrazoia dugu, armatua den etsaiari armak eskuetan jazartzea. Hortan herria gurekin da, hala ñola konsul bat bere etxetik norabait eraman dugularik eta ogei ta lau egunez preso euki.

Oraindik ez gera herri guziaren armanzekotan. Han hemenka nahiago dugu talde bat edo beste kolpe gogor batean jokarazi, herriaren laguntzaz baliatuz, herriak baidaki hori eginaz bere onetan ara geraia. Herri-armada bat moldatzearekin, gure gudua mail batez goraturik izango da. Orduan ez dirá bakarrik talde aurreratuenak etsaiari jazarriko, baizik herri osoa.

Comunistak dirala esaten duten « social-democratek » usté dute, hala beharrian ezin-bestean, on déla herriaren armatzea, baina ez dute gudaritalderik apailatzen. Hortarik ageri da, herria guduan sar-erazi baino nahiago dutela exaletik zer edo zer aldatu, baña ez egiazko bat egin.

Ez dugu esan nahi « Espanoiistak » hortaratu direla, baina ez ahal dute lasterregi kondenatu gure ekintza, kontsula eraman dugularik ? Nundik eta ñola esan dute ekintza horrek herria ikaratu duela eta geroztik izan den zapalketak iraultza atzeratu duela ?

Burgesek diote gure herrial marxismoaren bildurra daukela. « Espanolistek » aldiz usté dute herrial ekintza gogorren beldurra daukela. Batzuek eta bestek ez dute ikusten Euskaldunen guda-zaletasuna, baizik berek daukaten beldurra.

Bana E.T.A.-ren barruan guk ere gure hutsak baditugu. « Espanolitak » askotan aipatzen dutena auxe da : langilleak behar duela iraultzaren buru izan, et langille abertzaleak, alderdi berezi batean sarturik, hobeki ariko dirala, bai langilien, bai aberriaren onetan.

??  
?????????????

Jadanik esan dugu euskal-abetzaletasuna, pixkana-pixkana, burgesen menpetik ateratzen ari dela eta langillen indarra

nausituz direla. ??????? ikus dezake langilleak errendatu zaizkigula eta ??????? politika ta kutura-saileten trebatu. Langilearen indarra ez balitz handitu, abertzale-gudua etzen ??????? gogortuta ez eta ere F.N.L. bat egiten asiko indar horrek behar du oraino ???????, ez P.C. "vasco" delakoan sartuz, baizik langille alderdi euskaldun berezi bat moldatuz, ....handi gera hortatzeko ez dugularik behar dena egiten.

Hortan errudun garaia esaten dutenak ez dira Euskadiko langillen izenean mintzo, baizik EspaÑako langille-klasearen izanean. Ez ahal dakite P.C.ko langille espanaien aurka guk ??????? ez degula, baña munduko langilletan, lenengo gureak, euskaldunak, askatu nahi dugula?

Zoritzarrez, orain arte ez ditugu gauzak hainen argi ta garbi esan. Horregaitik, badira gudariak, langille alderdi berezi bat moldatu-nahi zutenak eta "Españolaren" jokaera harturik ez dira onhartzen beren buruzagiak ezkertiar menper atzailatera larratu direla.

Bestalde, langille-gudaristan batzuk, abertzale bezala, gurekin ados dira, baña langille bezala, gauzak ez ditugulako ??????????, guitarik ?????? ???? langille alderdi baten moldate asmotan dira: alderdi hori sortzen bada, hainbat hobe, baña zergatik ez egin lan hori, alde diren guztien laguntzarekin?

Nola nahi, ez dugu .tsutu behar: E.T.A.-ren barruan eta bereziki inguruan, badira marxismoa anhartzen ez dutenak. Batzuk "pequño-burgues" ... oraindik lagillekin ondo uztartu ez direnak eta beste batzuk, española begiko zikiña baino gehiago ikuzten ahal ez dutenak. Hego-Euskal Herriak asko pairatu du Espanyo-zapaltzaileen gatik. Bainazapalduta dagon euskaldunak ez ditu galtzeste berean sartu behar zapatzaille arrotzak eta langille arrotzak españolak direla-ta...

Langille españolak ere, gubezala, iraultza egin nahiak dira badanid lagundi dituzte euskal-abertzaleak. Haien laguntza egunero handiago izango da.

Baina, denbora gutaiz, askotan agertu dira, beren burua marxista egiten zuten español menperatzaileak. Ez da harritu behar sa..sa

beran sartuak izan balio badira, bai marxistak eta bai españolistak. Hoakorik ez dugu onhartzen; Alde batetik marxismoaren abertzale-?????????etan oitu-ta gaudelako eta bestalde.. bai español, bai frantses herriak veste nazioekin hartu-emanetan direlako.

Hain ???????, hau da gure bigarren arros: abertzale sozialistak izan eskero, nahita nahi ez, beste naziolekin en alkartu behar dugu. Gure lehen etsaiak zein dira? Español eta rantsas renperatzaillek. Bana gure aurrako bi ezta ... bizi diren herriekin izkarraiak baditugu.

Horri hortan laguntzak indar handia ematen dio iraultza-gudari, Euskaldun gehienak hego-aldean bizi geralako, hartu emanak euki behar ditugu bereziki kastellano, andaluz, katalan, galleg ta kanariarrekin. Batzuek diote zergatiz ez egin obes?????? Viet-Namitekin 7 Hauxe dugu arantzuten: Nazioien arrdo gure lehen ekintza-bideak auzo-harrietara dioaztalako.

Zoritzarrez hor dugu errurik handiena, edo abertzale bezala espanoiak ezin ikusi, edo español-ezkertiar alderdiak bezala, besteak menperatu beharrez, nazioenarteko politika sendo bat ez egin. Bi jokaera horien aurka behar dugu ezan, oraindanik irautza-gudan alkartuz Espanan eta Frantzian gure eskubidak begi onez ikusten asi direnekin.

Aihortzen dugu, gai hontan, "Españolistak" gu baino eskuz aurrera???? izan dirala eta gudari zintzoek bildu dituztela. Baña ikusiz ez dutela, mugaz bi bidetan iraultza-gudu berean sartu nahi, beldur gara horien buruzagiak, nazioien arteko esku ta eginbiden alde gudukatu beharrean, ez ote diran español sozial menperatzaileen azte..arretan erori.

Ageri hontan E.T.A.-karruko gorabeherak aipatu ditugu, Herriak ikus dezala zein diran batzu ta besten arrasoia. Esan dugu, bai "Espanolistak" ?????????? "imperialistan" menpean erortzeko arriskuan direla, bana aitorru ere guk behar dugula saiatu, marxismoaren bitartez, langille-alderdi euskaldun baten moldatzerat eta nazioien arteko batasunean sartzerat.

Batzu ta besten iritziak aziertu ditzagun, ino zauritu gabe. Alkarren aurka ez eroan izangiti gaixtorik (“ascistas” edo “Españolazos”), ez eta ere gezurrik esan, talde bat edo bestes baztartzeko. “Et?????? negu-..oietan dago, ????????? liburu irakurtzen, Madariaga kotxean paseatzen, Arregui Parisen lasai bizi eta Lopez bere ?????????? bukatzen” Herriar) ????????? diogu E.T.A.-ren barruko politika-jokarea desberdinak agertze, baina gure arteko saltza itzusiak ez zaizko gustatzen.

Esate baterako, E.T.A.-ko gudariekin, aberriari ta marxismoari begiratuz, hauxe dugu, gaurko egunean, adierazten.

**1.— Aurrezko biltzar** bategitea, jakiteko zer peotza ta zer egin, Biltzar-nagusiak agintzen ez duen bitartean. Gudariak ondo apailatu,

Biltzar-nagusian hobeki ordainduak izan dituen. Askoren iritzia da, ber.... marxistena, E.T.A.-k behar duela orain arte bezala billatu: batasuna, askatasuna, euskaldungoa, sozialismoa eta burruka gogorra.

E.T.A.-k nahi ditu bere inguruan bildu, F.N.L. bat moldatu nahi duten euskal-ezkertiarrak, bai eta marxismo-abertzale bat eraikitzeko asmotan diren langille, baserritar eta jakintsunak.

**2.— Jokaera guzien arrazoiak eskondu,** buru-lan batzuk ageraraizik bai kondatea bai burruka, bai ????????? ezinbada eta politika sailla zintzoki azturtuz.

**3.— Mugaz bi bidetan, nazioen arteko politika-bidean abistu,** gure gain jartzeko eskubidea onhartzen diguten alderdi guziekin hartu-emanetan ?????.